



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhoa Mindeguia Santesteban
Txomin Hualde Elizalde
Martxel Elizalde Elizalde
Pedro Hilario Santesteban Loyarte
Ezeziel Loiarde Santesteban

2024ko maiatzaren 27an, 19:00tan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. - AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak gaia azaldu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- 2024ko martxoaren 27ko eta maiatzaren 14ko aktak onartzea.

2.- NOSTRATEC URBIDEEN BIDERATZEA PROIEKTUA ONARTZEA.

Zubietako herrigunean bi urbide elkartzen dira, bat mendebaldekoa eta bestea ekialdean. Euri asko egiten duenean ura ateratzen da eta herriko kaleak urez betetzen dira Goiko aldeetan, neurri handi batea, hirigunean aire zabalean ibiltzen dira. Eraikuntza dentsitate handiko kaleetara iristen direnean bakarrik, kolektoreen bidez bideratzen dira. Bi urbideak, herrigunetako kaleak eta honen azpiko urak igaro ondoren, bateratu egiten dituzte, eta berriro zero zabalean ibiltzen dira, Ezkurra ibaira aiegatuz.

Nafarroako Foru Komunitateko Ingurumen departamenduko, klima aldaketa zerbitzuak uholde arriskuendako dirulaguntzak atera ditu eta Zubietako udalak Nostratec enpresari proiektua bat egiteko eskaera egin zion dirulaguntzara aurkezteko.

Gaia azaldu ondoren, Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Nostratec aurkeztutako urbideen bideratzea proiektua onartzea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

3.- 2024/1 ALKATE EBAZPENA BERRETSI, PDR DIRULAGUNTZA.

2024ko urtarrilaren 17ko 1/2024 alkate ebazpena irakurtzen da:

“ALKATE JAUNAREN EBAZPENA. 2024/1 Zka.

“ 2023-2027 Landa garapeneko Programako diru-laguntzen deialdia ikusirik,

XEDATU DUT:

1. Diru-laguntza eskaera abiaraztea, Herriko ostatuko sukaldea berritzeko, sarrera irisgarria eta gela baten egokitzapena izateko beharrezkoak diren gastuak finantzatzeko asmoz.

2. Udal-Bilkurari aurkeztea ebazpen hau, berretsi dezala eskatuz. “

Udalbatzak **hurrengo** erabaki du:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- 1/2024 alkate ebazpena berretsi egiten da.

4.- XEHETASUN AZTERLANA AA16 (4.POLIGONOKO 918 LURZATIA). HASIERAKO ONESPENA.

Xehetasun azterlanean, rasante aldaketak falta zirela errekerimendua egin zitzaion sustatzaileari. Beraz hori zuzendu arte ezin da hasierako onespena eman.

5.- ESKAERAK

5.1.- Ainhoa Mutuberria Ibarra andreak, Arantza Mutuberria Ibarra andreak herriko zeinbait tokitan garbitzen aritu dela esaten du eta Dendarineako etxerako auzolantzat hartzea eskatu dio udalari. Udalbatzak **hurrengo** erabaki du:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- Dendarineako etxeko auzolana bat bezala kontatzea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

5.2.- Jose Javier Juanikorena jaunak 4.poligonoko 204 lurzatiaren jabeetako bat denez, lurzati hori helikopteroak larrialdietan lurra hartzeko erabiltzen dela aipatzen du. Gaur egun ez dela deus ordaintzen esaten du eta urtero 100 euro ordaintzeko proposamena aurkezten dio udalari.

2015eko abuztuaren 14ko idatzian, (222/2015 zenbakidun sarrera) Zubietako udalak aipatutako lurzattia erreserbatuta edukitzeagatik urtero 20 euro ordaintzeko prest zegoela helikopteroa lurreratzeko adostu zen.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- 2015ko akordioan adostutakoaren arabera, 20 euro ordaindu behar zitzaenez, 9 urteko zorrak ordaintzea erabakitzen da, hau da 180 euro.

2.- Lurzatiaren jabeekin bilera bat egitea, hitzarmen berri bat egiteko.

3.- Bankuko kontu bat ematea dirua sartzeko.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

5.3 Juan Ignacio Paul arzak jaunak aldapako pista gaizki dagoela aipatzen du eta gutxienezko moldaketa egiteko eskaera egiten du. Eskaerarekin batera plano bat atxikitzen du. Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Egoera txarran dago baina pista hori ez doa bizitza batera. Momentuan lehenetasuna duten pistak, orokorrak edo bizi bordara doaztenak dira. Moldatu nahi izanez gero, ur korteak jarri nahi baditu udalak emango dio.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

5.4.-Lino Elizalde Loyarte jaunak Mendabioko zubia erortzear dagoela aipatzen du eta beheitiago dagoen beste zubi batetik ere ezin dela pasatu. Auzolanean konpontzea eskatzen du. Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Zubiak bertako bizilagunekin auzolanean konponduko dira.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

4.-ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (20/2024- 29/2024 ebazpenak).

5.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

2024ko otsailaren 21ean Domintxeneko borda (2.poligonoko 120. Lurzatia) ikustatzeko bisita egin zen eta bertan egiaztatu zen gelditutako lanak aurrera jarraitu dutela. Chocarro eta Urmeneta arkitektoek, 2024ko maiatzaren 21ean, obrari buruz egindako txosten teknikoan oinarrituz, hirigintzako legezketasunaren babesako eta hautsitako ordena lehengoratzeko espedienteari hasiera ematea aho batez erabakitzen da ---Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduri egindako oihan aprobetxamendu eskaerak; Bautista Baleztena Petricorena eta Martin Lorenzo Santesteban--- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduak emandako aprobetxamendu baimenak: Lorenzo Santesteban Baleztena, Josefa Loyarte Elizalde, Jose Maria Juanicorena, Mariano Francesena.--- Luzapen baimena Antonio Elizalde Loyarte—Ingurumen departamenduak bidalitako abereen zentzua—Kulturaren Zuzendari Nagusiaren 90E/2024 ebazpena artxiborako 608,39 euroko dirulaguntza emanez—Nafar Sarekozuzendari nagusiak emandako 1164E/2024ko ebazpena Zubietako errotarako langilea kontratatzekeo13.200 euroko dirulaguntza emanez—28E/2024 Foru agindua, apirilaren 5koa, ikusirik euskera sustatzeko dirulaguntza eskatzen da-- Nafar Sarekozuzendari nagusiak emandako 1305E/2024ko ebazpena bi herri langileak kontratatzekeo13.200 euroko dirulaguntza emanez---Osasunbidearen zuzendari nagusiaren 453/2024 ebazpenean mediku kontsulta berritzeko dirulaguntza ematen da—Zubietako errotarako funtzionamendu eta inbertsiotarako dirulaguntza eskatuko da----Besta berri igandean ospatuko da, herriko sei gazta hartu dira, musika lotuta dago, meza 16:30tan izango da eta txokolatada ostatur.

6.- GALDE-ESKAERAK

Ez dago galde-eskaerik.

Eta bertzerik ezean, 20:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.